



"Gabon azoka aukera bikaina da tokiko merkataritza eta sormena balioesteko"

Gabonetako azokaren bigarren edizioa antolatu dute Bertan merkatarien elkarteak eta Artiekin Azpeitiko artisauen elkarteak. Hitzordua bihar izango da, plazan, 10:00etatik 20:00etara, eta hoge salmenta postu egongo dira guztira.

AZPEITIA

Gabonetako azokaren bigarren edizioa egingo duzue bihar. Zer-nolakoa izango da?

ASUN ESNAOLA: Azpeitia Gabon giroan murgilduko da bihar, tokiko merkataria eta artisauak batuko dituen Gabonetako azokaren bigarren edizioarekin. Ekitaldia Bertan merkatarien elkarteak eta Artiekin Azpeitiko artisauen elkarteak antolatu dute, eta aurtengo hitzordua bihar egingo dute, 10:00etatik 20:00etara, Plaza Nagusian.

Aldaketekin dator, beraz?

ANA AZURMENDI: Iazko edizioarekin alderatuta, data au-

rreratu dugu herritarrei Gabonetako erosketak azokan bertan egiteko aukera eskaintzeko eta tokiko kontsumoa indartzeko. Era berean, azoka Done Jakue kaletik plazara lekualdatu dugu. Guztira, hoge postu egongo dira, herriko merkataritza eta artisautza sarearen erakusleho direnak.

A.E.: Eguraldi txarra eginez gero, Azoka Plazan egingo dugu azoka.

Zer helburu ditu azokak?

A.A.: Gabonetako azokak aukera bikaina eskaintzen du bertako merkataritza eta sormena balioesteko, herrian

erosteko eta gertuko ekonomiar laguntzeko.

Nortzuk parte hartuko dute azoka berezian?

A.E.: Tokiko merkataria hainbat izango dira, hala nola Alar mertzeria, Ametsen Txokoa, Diart, Egaña gozotegia, Farmazabal, Iru burdindegia, Jostaldi Kirolak, Kiribil ekodenda, Koket, Makibar eta Oihele.

"Herriar guztiak bihar plazara gerturatzeraz gonbidatzen ditugu"



A.A.: Artisauak, berriz, Aldaxka, Amuki, Belargi, Espiral tailerra, Harrihari, Kike Kikorro, Kimura, Kohpao Studio eta Miara izango dira.

Merkatariez eta artisauetz gain, bestelako eskaintzarik izango al da?

A.A.: Gastronomia eta hurbileko produktuen zaporeak dastatzeko aukera ere izango da. Goizean, adibidez, gozoak eta edari beroak eskainiko ditugu, azokaren inguruan giro epela sortzeko. Eguerditik aurrera, aldiz, Makibarrek aukera gastronomiko berezia jarriko du eskura: txorizo egosia, gazta,

irasagarra, ardoa, sagardoa, txakolina eta bestelako hainbat produktu.

A.E.: Aldi berean, Izan Moxal izeneko marrazkien txokoa jarriko dute haurrentzat eta gaztetxoentzat. Horiek, marrazkiak egiteaz gain, lanak erakusgai jartzeko eta zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

Herriarrentzat mezu bat...

A.E.: Herriar guztiak bihar plazara gerturatzeraz gonbidatzen ditugu, eta Gabon azokaz goza dezaten nahi dugu, tokioa babestuz eta Gabonetako erosketak bertan egiteko aukera baliatuz.

"Geratzeko eta hazteko" iritsi da Gabonetako azoka

Abenduaren 5ean ireki zuten Gabonetako parkea. Zarauzko Udalak, Murkil eta Zurekin elkarteekin lankidetzan, abian jarritako azoka urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik.

ZARAUTZ

Gabonak berrikuntzekin iritsi dira Zarautzera. Nagusia zera da: Amalur parkean jarri duten Gabonetako azoka. Zarauzko Udalak Murkil eta Zurekin elkarteekin elkarlanean antolatutako azoka urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta

16:30etik 20:00etara. Izango da salbuespenik; gaur eta abenduaren 19an arratsaldean soilik izango da irekita.

Zarauzko Gabonetako ospakizunek badute beren izaera eta tradizioa. Hala esan du Xabier Txurruka alkatea: "Aurtengoan, urtero antolatzen di-

ren ekitaldien egitaraua osatu eta lazo berezi bat jarri nahi izan diogu. Herriko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko helburuarekin, hilabete osoarako egitasmoa martxan jartzea lortu dugu".

Gabon azokako postuak Nahia artisau elkarteak kudea-

tuko ditu, eta egurrezko etxoletan egongo diren ekoizleak zein artisauak aldatu egingo dira astero. Bestalde, jan-edanaren postu bat ere jarri dute; Zarautz Kirol Elkarteko errugbi taldea arduratuko da postu horren kudeaketaz, eta 16:00etatik 21:00etara, txurroak, txokolata, krepeak, gofreak eta patatak erosi ahal izango dira han. Salmenta postuez gain, haurrentzako karrusela ere jarri dute azokan -hiru euro balio ditu txartelak-, eta asteburuetan atrakzio bereziak ere izango dira -doakoak izango dira-: 28 metroko luzera duen trineo-puzgarria eta eski simulatzailea.

Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeaz gain, herriarrek Gabonez herrian goza-

tzeko aukera izatea ere nahi du udalak, eta horregatik antolatu ditu azoka eta horren bueltako ekintzak. "Gabonetako egun horietan Zarautzik kanpo zer plan egin dezaketen pentsatzen ibili beharrean, familiek herrian Gabonetako giro bikainaz gozatzeko aukera izatea nahi dugu, inora joan beharrik izan gabe", azaldu du Txurrukak. Hark garbi du, gainera, Gabonetako azoka gelditzeko iritsi dela herrira. Egitasmoa bera eta haren eragina Gabonen ostean baloratuko baldin badute ere, udalak azokaren aldeko apustua egin duela gogorarazi du alkatea, "herriarrentzat onuragarria" izan daitekeela uste duelako. Hala esan du: "Gabon azoka geratzeko eta hazteko iritsi da Zarautzera".



GABON

HAUETAN AFAL
EZAZU GUREKIN

Villa Antilla Hoteleko Haizea jatetxeko
lantaldeak Gabonak eta Urte Berria
ospatzera gonbidatzen zaitu.

EZAGUTU GURE MENU BEREZIAK WEBEAN

www.villaantilla.com | Egin zure erreserba (+34) 943 89 21 02

AZKOITIA

AZKOITIA
Udala

Euskadi, auzolana



Jarraitu zure
bihotzeko
taupada eta
erosi herrixen!

Merezitako aitortza merkatari txikiei

Herrixen merkatarien elkarteak eta Azkoitiko Udalak antolatutako ekitaldia abenduaren 20an egingo dute, Portaleburun, 13:30ean. Egunean zehar, txu-txu trenaz eta kale ikuskizunaz gozatzeko aukera ere izango dute herritarrek.

Merkataritza txikiaren funtzioa herritarrei produktuak eskaintzeaz haratago doa. Herri guztietako kaleak kolorez eta bizitzaz janzten dituzte, gertuko tratua ematen diete bezeroei eta egunerokoan beharrezkoa den guztia eskaintzen dute. Hori horrela izanik, herriko merkatariak urtean zehar egiten duten lan guztia eskertzeko eta goraipatzeko aitortza ekitaldia egingo dute Azkoitian. Herrixen merkatarien elkarteak eta Azkoitiko Udalak antolatutako ekitaldia abenduaren 20an egingo dute, Portaleburu aretoan, 13:30ean hasita.

"Lan ikaragarria da urtean zehar egiten dutena, are gehiago Gabonetan. Beraz, garai egokiena iruditza zaigu omenaldia egiteko. Ekitaldi txikia izango

da, baina merezi duten omenaldia jasoko dute herriko merkatariak, txikiak deitzen diegun arren, handiak direlako", agertu du Herrixen merkatari elkarte-ko teknikari Sara Rodriguezek.

Halaber, merkatariak eskaintutako ekitaldia aprobetxatuko du Herrixen elkarteak abenduaren 18ra arte zozkatuko dituen Gabon otarreak banatzeko. Abenduan zehar Azkoitia txartelarekin ordainketak egiten dituzten herritarren artean zozkatuko dituzte saskiak. Guztira, 23 otarre banatuko dituzte Portaleburuko ekitaldian.

Aitortza hitzordu horrez gain, bestelako ekintzak ere antolatu dituzte udalak eta Herrixen elkarteak. Goizean, adibidez, herritarrek Azkoitiko kaleetan barrena txu-txu trenean ibil-

tzeko aukera izango dute; arratsaldean, aldiz, kale ikuskizun ibiltariaz gozatzeko aukera, 18:30etik aurrera.

Zozketa

Gabonetako ekitaldiak ez dira hitzordu horiekin amaituko. Izan ere, kaleetako argiez eta merkatarien Gabonetako bideoaz gain, herritarrek dirua irabazteko aukera ere izango dute datozen asteetan. Hain zuzen ere, abenduaren 26tik aurrera herriko saltokietan erosketak eginez gero, paper bat beren datuekin betetzeko aukera izango dute herritarrek, eta hori egiten duten herritarren artean 500 euroko hiru erosketa bonu zozkatuko ditu Herrixen elkarteak. Hiru irabazleen izenak urtarrilaren 9an jakinaraziko dituzte.

Giroz betetako Gabonak

Zumaiako Udalak eta Gertu merkatari elkarteak ekitaldiz, lehiaketaz, kontzertuz eta jai giroz beteko dituzte datozen asteak. Bi erakundeek antolatutako egitarau oparoak helburu nagusi bat du: herritarrek erosketak herrian bertan egitea.

ZUMAIA

Abendua iristearekin batera, eta Gabon giroa berotzeko asmoz, Gertu elkarteak eta Zumaiako Udalak egitarau oparoa prestatu dute herritarrek erosketak herrian egite-
ra bultzatzeko. Hori dela eta, zumaiarrek datozen asteetan antzezlanek, kontzertuek

edota dantzez gozatzeko aukera izango dute.

Musika eskolako ikasleek, Ispirit taldearen *Aretha Gospel* kontzertua, Musika Bandaren edota trikitilarien doinuak entzun ahaliko dira herrian. Era berean, musika eskolakoek euskal dantzen

ikuskizuna eskainiko dute abenduaren 15ean, eta eta 19an, berriz, Gil Harush dantzariaren *Ibaia* emanaldia izango da Aita Mari aretoan. Bi antzerki emanaldi ikusteko aukera ere eskainiko dute Zumaiako areto horretan; batetik, gaur, Ados Tatroaren *52 Hertz* antzezlan, eta bestetik, igandean, Semaforoa haurrentzako obra. Txiki-
nentzat ipuin kontaketa saioa ere antolatu dute; hain zuzen, Ana Apikak *Familia albuma* kontakizuna eskainiko du hilaren 18an.

Kirolerako tartea ere izango da Gabonen bueltan Zumai-
an. Abenduaren 26an, adibidez, Gabonetako Futbol Txapelketa jokatu dute, eta hilaren 27tik 30era, aldiz, Espillaren oroimenezko Eskubalo Txapelketa hartuko du Lubaki kiroldegia. Abenduaren 29an, bestalde, Xake Txapelketa egingo dute Oxford-en, eta urteko azken egunean ohikoa

denez, San Silbestre lasterketa egingo dute.

Badator ginkana

Tokiko merkataritza zein kontsumoa indartzeko, eta, bide batez, bezeroak sartzeko aldera, ginkana antolatu du Gertu Zumaiako merkatari-
en eta ostalarien elkar-
teak, udalaren laguntzarekin. Abenduaren 15etik urtarrila-
ren 5era bitartean, elkarteko

kide diren saltokietan erosketak egitean, eskuorri bana jasoko dute bezeroek. Eskuorri hori elkarteko lau estable-
zimendutako ziguiluekin be-
tetzen duten bezeroak ehun euroko bost erosketa txarte-
len eta 500 euroko beste ba-
ten zozketan sartuko dira. Irabazleen berri urtarrilaren 16an emango du Zumaiako merkatari-
en eta ostalarien el-
karteak.



marmarra



URDANETA BIDEA, 18

ZARAUZ

Gozatzeko unea da! Badatoz Gabonak

Zure ***gourmet denda*** festa hauetarako



Egin eskaera
whatsappez



Teléfono: 843.74.10.01



Egin eskaera whatsappez

14:00ak baino lehen egindako
eskaerak hurrengo egunean
jasotzeko prest dendan.

Egin zure gabonetako erosketa



@marmarra_gourmet

GESALAGA
BASQUE HOME COOKING

okeLaN

CROQUETA
Y PRESUMIDA

SURA

GABONETAKO EROSKETA / GABONETAKO EROSKETA / GABONETAKO EROSKETA

Lau oparien araua



Haurrak benetan nahi duen zerbait

0-12 HILABETE



12-24 HILABETE



2-3 URTE



3-4 URTE



4-5 URTE



5-6 URTE



Behar duen zerbait

0-12 HILABETE



12-24 HILABETE



2-3 URTE



3-4 URTE



4-5 URTE



5-6 URTE



**Etxeko platerak, amonarenak, zuretzat
beti prest, Batela prest-en**



Geltoki bidea, 7 Zarautz
T 943-84 01 40 M 673 38 18 40
@batelaprest@gmail.com



BATELA
prest

Nola saihestu daiteke hori?

Hurrei opariak baloratzen irakatsi behar zaie, eta horretarako, ez dute opari gehiegi jaso behar, ez baitituzte behar. Hobe da familiakoekin eta gertukoekin denbora pasatzeko abagunea oparitzea; benetan behar duten zerbait da hori eta etorkizunean ere gogoratuko dutena.

Horri lotutakoa da lau opariaren araua. Baina ba al dakizu zertan datzan? Haurrari lau opari egitea da gakoa, hain zuzen ere. Lau opari horiek horrela zehaztu behar dira: janzteko zerbait, haurrak benetan nahi duen zerbait, behar duen zerbait eta irakurtzeko edo ikasteko zerbait.

Jarraian, opari bakoitzari buruzko ideiak edo adibideak, adin bakoitzari lotutakoak.





KATTALIN

Ezkontza-eraztunak, konpromiso eraztunak, bitxiak, erlojuak, osagarriak...

Araba kalea 41, Zarautz · 943-13 45 04 · 679 61 28 96

Eskerrik asko

30

urte hauengatik

Urola Kosta, jasangarritasunean oinarritutako argiztapena

Gabon garaia iritsi aurretik argiztatzen dituzte Urola Kostako herriak. Erdiguneak nahiz auzoak izan, argiz eta apaingarritz betetzen dira bazterrak. Urtez urte, argi horien kontsumoan jarri dute fokua herri desberdinetako udalek. Hona hemen herri batzuetako jailetako argiteriaren inguruko datuak.



Zarautz

Gabonetako argiak pizteko ekitaldia azaroaren 28an egin zuten Zarautzen. Urola Kostan Zarautz da jailetako argiterian diru gehien gastatzen duen herria. Dena den, Xabier Txurruka alkateak azpimarratu du nabarmen jaitsi dela kontsumoa LED argiteria jartzen hasi zirenetik: «Azken urteetan, Gabonetako argiteria guztia, oso-osorik, kontsumo baxuko LED teknologiaz osatzen da, eta, horri esker, kontsumoa %80 inguru jaitea lortu dugu, nahiz eta urtetik urtera argiztapen puntu gehiago jarri ditugun». Hala, aurten, 52.453 euro kostatu zaizkie herrian jarritako argiak. Guztira, 56 argiztapen arku, hamahiru biribilgune eta hainbat auzotako guneak argiztatuko dituzte, 40 egunez.

Azpeitia

Azpeitiko kasuan, argiak alokatu egiten dituzte, eta aurten alokatutako argien aurrekontua 16.232 eurokoa

da. Horietatik 14.550 euro Bertan merkatarik elkartek ordainduko ditu, eta gainerako 1.682 euroak, udalak. Abenduaren 5ean piztu zituzten argiak, eta egunero, gehienez, sei orduz egongo dira piztuta. Hori aurreikusita, aurtengo Gabonetako argiteriaren kontsumo gehigarria 4.400 kWh ingurukoa izango dela kalkulatu du erakundeak, «hamabost etxeren hileko gastuaren edo auto elektrikoan 22.000 kilometro egitearen baliokidea». Ingurumen inpaktuari dago-kionez, berriz, kontsumo hori 0,8 tona CO₂ isurketaren baliokidea dela azaldu du erakundeak, «urte batean 40 zuhaitzek xurga dezaketen kopuruaren antzekoa».

Azkoitia

Azkoitiko Udalak Gabonetako argiteriaren zati bat jabetzan dauka, eta beste multzo bat alokatu egiten du. Aurten, adibidez, alokairuko argien aurrekontua 17.924 eurokoa da. Uda-

lak nabarmendu duenez, azken urteetan «Gabonetan jartzen diren argi guztiak LEDak dira. Izan ere, jasangarritasunari begira, Azkoitiko Udalak herriko argiteria orokorra hobetzeko lan handia egin du azken urteetan. 2018an, instalazio elektrikoak berritu genituen, herriko 47 koadro elektriko berrituta, eta 2022an, LED argiak jarri ziren. Ia 3.280 luminaria daude herrian, eta horietatik 1.963 aldatu genituen orduan. Horrekin bi gauza lortu ditugu: jasangarritasuna nahiz aurrezte energetikoa eta segurtasuna bermatzea», adierazi du Ana Azkoitia alkateak.

Zumaia

Zumaiaiko Udalak beregan hartzen du Gabonetako argien kostua oso-osorik. Aurten, 37 egunez piztuko dituzte argiak, eta kaleko argiteriarekin batera piztuko eta itzalduko dira horiek. Nabarmendu dutenez, LED sistema ezarri zenetik herriko Gabonetako argien kontsumoa «oso baxua» da. Udalak lau urterako lizitatu zuen argiteria zerbitzua, eta urtean 43.390 euroko kostua du. «Zerbitzuaren barruan sartzen da materiala bera uztea, materiala jartzea, instalazioa eta mantenu lana. 2028an amaituko da lizitazioa, eta udala bestelako formulekin lan egitea aztertzen ari da», aurreratu du erakundeak.

ERREZETA

Errege opil osasuntsua



Osagaiak

Orea

- 80 gramo olo-irin integral
- 2 arrautza
- 5 gramo legamia kimiko
- Laranja ur koilaratxo 1
- Laranja eta limoi banaren azal birrindua
- Stevia, nahi hainbeste

Esnegaina

- Koko esne lata 1
- 30 gramo esne gaingabetu hauts

Apaintzeko

- Ezti gordina
- Almendra laminatuak
- Fruta deshidratatuak

Prestaketa

1. Orearen osagai guztiak irabiatu masa homogenea eta pikorrik gabekoa lortu arte.
2. Bota masa zartagin batera. Estali taparekin, eta su baxuan egosi. Gainazalean burbuilak agertzen direnean eta ia eginda dagoenean, irauli plater baten laguntzaz. Minutu bat gehiago egosi gorritzeko.
3. Atera eta utzi hozten. Hoztutakoan, egin zulo biribila erdian. Ondoren, erditik moztu horizontalki betetzeko.
4. Jar ezazu koko esne lataren zati solidoa (azalean gertzen den esnegaina) katilu batean, eta irabiatu. Ondoren, gehitu esne hautsa eta irabiatu dena masa bat izan arte.
5. Bete opila kokozko esnegainarekin. Pintzel batekin, ezti jarri gainean eta gehitu almendra laminatuak zein fruta deshidratatuak. Itxi, eta... prest!

Ez ahaztu

- Jostailu edo apaingarri txiki bat ezkutatu dezakezu errege opilaren barruan.

ZUMAIAKO MERKATARIEN GABONETAKO GINKANA

1000€
bonotan
500€x1 / 100€x5

Abenduaren 15etik urtarrilaren 5era
egin erosketak herrian, lortu zigiluak eta
ZORTE ON

Zumaiako
Udala



Z ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

GERTU
ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARIEN ELKARTEA

Euskadi, auzolana, bidez common

EUSKO JAURLARITZA
PUBLIKO MERKATUTZA
ETA KONTSUMO GARA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

DENBORAPASAK



ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?

OPARI FESTA

Ordena itzazu opari kaxa hauek handitik txikira.

Handienari **1** zenbakia eman, hurrengoari **2**. Txikienari **8** zenbakia jarri.



Gabonetako mahairako, aukeratu jatorria



www.baserriakm0.com

AURTENGO GABONETAN, URTEKO TRADIZIOARIK BEREZIENTAKO BATEAN LAGUNDUKO DIZUGU: **FAMILIAREKIN PARTEKATZEKO ZER PRESTATUKO DUZUN ERABAKITZEN.**

BASERRIA KM0-N KALITATE **BIKAIKEKO BERTAKO HARAGIAK** AURKITUKO DITUZU, EUSKAL HERRIKO BASERRIETAN HAZITAKO ANIMALIENAK.

GURE ONLINE DENDAN PATXADAZ AUKERATU AHAL IZANGO DITUZU ETA ALDEZ AURRETIK EROSI, HEMEN, **GURE HERRIKO ZAPOREAZ GOZATZEKO.**



Erosi HEMEN





- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiek dute pareta, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

TORTILLA



Izan **GUKA**  **KIDE**

ikUSBERA 44. zenbakia 2024ko iraila

ikUSBERA 43. zenbakia 2024ko iraila *Bai ederki oporretan!*

ikUSBERA 44. zenbakia 2025eko abenduak *LIPS!!* *PURRUT!!* *Plazetako lagun horiek*

Egin bazkide eta jaso **ikUSBERA** ren 3 ale urtean

Gabonetako Zozketa
Abenduak 1-24

21 Errege-Opil **Erosketa txeke**
2 * 500 € **4 Saski**
4 * 200 €

 @murkil_comercio_zarautz

   

NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Olentzero eta Mari Domingi

Euskal Herria

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

*Gurean ere,
oparia utzi dute
zuentzat*

